


## **ISEI - IVEI**

**Rs1.2.5. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4.  
MAILAN: ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN  
KULTURA.**





**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

---

**Edizioa: 2016ko abendua**

**© ISEI-IVEI-k argitaratua**

**ISEI-IVEI-K ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

**LAN TALDEA**

Araceli de Francisco

Inmaculada Tambo

José Ramón Ugarriza

M<sup>a</sup> Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**

M<sup>a</sup> Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

José Luis Tranche

Eduardo Ubieta



# Rs1.2.5

Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan:  
Zientzia, teknologia eta osasun kultura

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



Sarrera	4
Rs1.2.5.1 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek <i>Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia</i> eta kompetenziaren dimentsioetan ( <i>Ezaguera zientifikoaren ulermena, Naturaren errealitatearen azalpena, Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa eta Ezaguera zientifikoaren erabilera erabaki-hartzeetan</i> ) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.	6
Rs1.2.5.2 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera <i>Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.	7
Rs1.2.5.3 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek <i>Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia</i> lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).	8
Rs1.2.5.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa <i>Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-Ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.	9
Rs1.2.5.4 grafikoak: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa <i>Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziako</i> hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-Ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza. 2015. urtea.	10



## ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN KULTURARAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2013 eta 2015<sup>1</sup>.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzian* duten errendimendu-mailaren inguruko informazioa ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2013 eta 2015 urteetako Ebaluazio Diagnostikoetan lortutakoak dira emaitzak. Ebaluazio honetan 250 puntuko batez bestekoa ezarri da, 50eko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu mailarekin.

Emaitzak arlo hauekin lotuta aztertzen dira: hizkuntza-ereduak<sup>2</sup> eta ikastetxeko titulartasuna<sup>3</sup> (geruzak), ikasleen sexua, adin-egokitasuna irakasmalarekiko (jaioturtea eta egiten ari den irakasmala), familiako gehieneko ikasketa maila, familiako hizkuntza, jaiolekua eta Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala (ISEK).

*Zientzia-, teknologia eta osasun-kulturarako kompetentziako* batez besteko puntuazioa, 2015ean, 238 puntukoa izan da, 2009ko batez besteko puntuazioa (250) baino 12 puntu gutxiagokoa eta 2013ko batez besteko puntuazioa (236) baino 2 puntu gehiagokoa. Sexua aldagaiari dagokionez, 2009 eta 2015 urteen artean, batez besteko puntuazioen bilakaerak 14 puntuko jaisiera izan du nesken artean eta 11 puntukoa mutilen artean. Neskek, hiru edizioetan, mutilek baino 8 puntu gehiago lortu dituzte (2009, 2013 eta 2015).

*Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzian*, dimentsioak 2013ko Ebaluazio Diagnostikotik abiatuta ezarri ziren. Dimentsio bakoitzean eta urte guztietarako, batez besteko puntuazioa 250 puntutan ezarri da; izan ere, item kopurua murriztagoa da eta ez dira alderagarriak. 2015ean, neskek 253 puntu eta mutilek 247 puntu lortu dituzte dimentsio guztietan, *ikerketa zientifikoaren ezaugarriak ezagutzera ematea* dimentsioan izan ezik; bertan, neskek puntu bat gutxiago (252) eta mutilek puntu bat gehiago (248) lortu dute. 2013an eta 2015ean, lau dimentsioetako balioen artean, edo ez dago alderik edo aldeak 1 puntukoak edo 2 puntukoak dira.

*Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzian*, 2015eko ebaluazio diagnostikoan, ikasleen ehunekoa handitik txikira joan da errendimendu mailetan, % 55,6tik erdiko mailan, % 24,1 hasierako mailan eta % 20,2 maila aurreratuan. Maila aurreratuan eta erdiko mailan, nesken ehunekoak mutilen ehunekoa gainditzen du: 3,3 eta 2,6 puntu, hurrenez hurren. Hasierako mailan, mutilen ehunekoa nesken ehunekoa baino 5,9 puntu altuagoa da. 2009 eta 2015 artean ikasleen ehunekoak gora egin du hasierako mailan (7,2 puntu) eta erdiko mailan (3 puntu), eta behera egin du maila aurreratuan (10,2 puntu).

2015ean geruzen araberako batez besteko puntuazioak aztertzean, ikusten da puntuaziorik altuena itunpeko A ereduari (268) dagokiola; itunpeko B eta D ereduak datoz jarraian, biak 242ko puntuazioarekin. Sare publikoaren baitan, puntuaziorik altuenak lortu dituzte D (232) eta B (224) ereduak, eta puntuazio baxuagoa lortu du A

<sup>1</sup> Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2013 eta 2015. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

<sup>2</sup> EAEEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

<sup>3</sup> EAEEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



## Rs1.2.5

### Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Zientzia, teknologia eta osasun kultura

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



ereduak (220). 2009 eta 2015 urteen artean, ikasleen batez besteko puntuazioen bilakaera negatiboa izan da geruza guztietan. 14 eta 17 puntu arteko jaitsiera izan da eredu publikoetan, 6 puntukoa itunpeko A eta B ereduetan eta 14 puntukoa itunpeko D ereduan.

2015ean, *Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia*n batez ere erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoen ikaslearen profila honako hau da: irakasmillarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 78,3), autoktonoa (% 76,7), ISEK maila altua (% 83,6) duena. Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila irakasmilla errepikatu duten ikasleena (% 46,6), atzerritarrena (% 63,3), gurasoek derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituzten ikasleena (% 45,9) eta ISEK maila baxua (% 63,3) dutenena da. Euskadiko ikasleen ezaugarriek ia ez dute aldaketarik jasan 2009 eta 2015 artean, gurasoen ikasketa mailari dagokionez salbu, gora egin baitu.



# Rs1.2.5

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Zientzia, teknologia eta osasun kultura



SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



### Rs1.2.5.1 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleek **Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzian** eta kompetentziaren dimentsioetan (**Ezaguera zientifikoaren ulermena, Naturaren errealitatearen azalpena, Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa eta Ezaguera zientifikoaren erabilera erabaki-hartzeetan**) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.

		2009	2013	2015
<b>Guztira</b>	Guztira	<b>250</b>	<b>236</b>	<b>238</b>
	Neskak	255	241	241
	Mutilak	245	231	234
<i>Ezaguera zientifikoaren ulermena</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		253	253
	Mutilak		247	247
<i>Naturaren errealitatearen azalpena</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		254	253
	Mutilak		246	247
<i>Ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarrien azterketa</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		253	252
	Mutilak		247	248
<i>Ezaguera zientifikoaren erabilera erabaki-hartzeetan</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		255	253
	Mutilak		245	247





Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2013 eta 2015.



### Rs1.2.5.2 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

	HASIERA Errendimendu maila			ERDIA Errendimendu maila			AURRERATUA Errendimendu maila		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	<b>17,0</b>	14,0	19,9	<b>52,6</b>	52,7	52,5	<b>30,4</b>	33,3	27,6
2013	<b>25,6</b>	20,9	29,9	<b>54,7</b>	57,1	52,4	<b>19,8</b>	22,0	17,7
2015	<b>24,1</b>	21,2	27,1	<b>55,6</b>	57,0	54,3	<b>20,2</b>	21,9	18,6



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2013 eta 2015.





# Rs1.2.5

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Zientzia, teknologia eta osasun kultura

### Rs1.2.5.3 taula eta grafikoak:

LHko 4. mailako ikasleek *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentzia*n lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).

	2009	2013	2015
A Publikoa	237	230	220
B Publikoa	238	222	224
D Publikoa	247	233	232
A Itunpekoa	274	259	268
B Itunpekoa	248	236	242
D Itunpekoa	256	241	242
Guztira	250	236	238



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2013 eta 2015.





# Rs1.2.5

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Zientzia, teknologia eta osasun kultura

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



### Rs1.2.5.4 taula:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.**

		Ikasle %			Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
		2009	2013	2015		2015	
ISEK	Maila baxua <sup>2</sup>	14,6	17,0	<b>16,2</b>	36,7	50,8	12,5
	Maila ertain baxua <sup>2</sup>	23,4	24,9	<b>23,6</b>	27,0	55,8	17,2
	Maila ertain altua <sup>2</sup>	28,0	26,9	<b>27,7</b>	23,5	57,4	19,1
	Maila altua <sup>2</sup>	34,0	31,1	<b>32,5</b>	16,4	56,5	27,2
Egokitasuna	Ikasmila egokia	92,7	92,6	<b>92,4</b>	21,7	56,8	21,5
	Ikasmila <b>EZ</b> egokia	7,3	7,4	<b>7,6</b>	53,4	41,5	5,1
Titulartasuna	Publikoa	50,2	50,2	<b>50,3</b>	28,2	55,7	16,1
	Itunpekoa	49,8	49,8	<b>49,7</b>	20,0	55,6	24,3
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu <b>gabe</b>	3,3	3,6	<b>3,5</b>	54,1	40,3	5,6
	Derrigorrezko ikasketak	12,9	14,2	<b>12,5</b>	37,9	51,5	10,6
	Batxilergoa, HZ	34,6	36,0	<b>36,5</b>	26,0	57,7	16,3
	Goi mailako ikasketak	41,0	46,3	<b>47,5</b>	15,7	56,6	27,7
Jaioterria	Autoktonoa	94,7	94,8	<b>94,5</b>	23,3	55,9	20,8
	Emigratzailea	5,3	5,2	<b>5,5</b>	36,7	50,9	12,4
Familia-hizkuntza* euskara	Probaren hizk. euskara	97,3	97,0	<b>26,1</b>	16,0	58,1	25,9
	Probaren hizk. gaztelania	2,7	1,9				
Familia-hizkuntza* euskara <b>EZ</b>	Probaren hizk. euskara	55,8	80,4	<b>73,9</b>	26,9	54,7	18,4
	Probaren hizk. gaztelania	44,2	19,1				

\*2009. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2013 eta 2015.




# Rs1.2.5

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Zientzia, teknologia eta osasun kultura

### Rs1.2.5.4 grafikoa:

LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikasleen ISEK (Indize Sozio-ekonomiko eta Kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza. 2015. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2015.